ENE KANTAK




# ABESTIEN

# HITZAK

kaixo@enekantak.org | www.enekantak.org
Facebook · Youtube · Instagram · Twitter · Spotify

# EGUN ON

MUSIKA:
Nerea Urbizu
HITZAK:
Nerea Urbizu
ABESLARIAK:
Urko Oskoz eta Nerea Urbizu

EGUN ON, EGUN ON, TA ILARGIARI GABON
EGUN ON, EGUN ON, TAUPA-TAUPA GORPUTZA “ON”
EGUN ON, EGUN ON, TA ILARGIARI GABON
EGUN ON, EGUN ON, ALAITASUN ETA ZORION

HITZ, KEINU, BEGIRADA ATSEGIN BAT, USAIN GOXO BAT
EGUNA EZINHOBE HASTEKO MODU POLITA
BESARKADA GOXOA,
BOSTEKO POTOLOA,
ALGARA_ITSASKOR BAAAAAAAAAAT

**EGUN ON, EGUN ON, TA ILARGIARI GABON**
**EGUN ON, EGUN ON, TAUPA-TAUPA GORPUTZA “ON”**
**EGUN ON, EGUN ON, TA ILARGIARI GABON**
**EGUN ON, EGUN ON, ALAITASUN ETA ZORION**

HITZ, KEINU, BEGIRADA ATSEGIN BAT, USAIN GOXO BAT
EGUNA ZORAGARRI HASTEKO MODU BIKAINA
MUXU SOINULARIA,
JOLAS DIBERTIGARRIA,
ALGARA_ITSASKOR BAAAAAAT

EGUN ON SATOR
EGUN ON ASTO
EGUN ON NERE
BAITA ZUEI ERE
EGUN ON SATOR
EGUN ON ASTO
EGUN ON ENEKO
BAITA ZUEI ERE (BERRIZ)

**INSTR.**

**EGUN ON, EGUN ON, TA ILARGIARI GABON**
**EGUN ON, EGUN ON, TAUPA-TAUPA GORPUTZA “ON”**
**EGUN ON, EGUN ON, TA ILARGIARI GABON**
**EGUN ON, EGUN ON, ALAITASUN ETA ZORION**
**ALAITASUN ETA ZORION**

# ASTOTXIKI ETA SATORTXIKI

MUSIKA:
Nerea Urbizu
HITZAK:
Nerea Urbizu
ABESLARIAK:
Urko Oskoz eta Nerea Urbizu

**ASTOTXIKI-TXIKI**
**SATORTXIKI-TXIKI**
**LAGUNTXO MAITEKORRAK**
**ASTOTXIKI-TXIKI**
**SATORTXIKI-TXIKI**
**GURETZAT MAGIKOAK (berriz)**

TXIKITATIK DIRA ELKARREN LAGUNAK, BEREIZEZINAK
JOLASTIAK ETA ADAR JOTZAILEAK, BENETAN ATSEGINAK

**ASTOTXIKI-TXIKI**
**SATORTXIKI-TXIKI**
**LAGUNTXO MAITEKORRAK**
**ASTOTXIKI-TXIKI**
**SATORTXIKI-TXIKI**
**GURETZAT MAGIKOAK (berriz)**

BATAK ILARGIA MAITE DU ETA BESTEAK LORRINAK
ZAINTZEN DITUZTE MUNDUTARRAK ETA ZERU URDINAK

**ASTOTXIKI-TXIKI**
**SATORTXIKI-TXIKI**
**LAGUNTXO MAITEKORRAK**
**ASTOTXIKI-TXIKI**
**SATORTXIKI-TXIKI**
**GURETZAT MAGIKOAK (berriz)**

**GURETZAT MAGIKOAK**

# EZ DUT NAHI

MUSIKA:
Nerea Urbizu
HITZAK:
Nerea Urbizu
ABESLARIAK:
Kristina eta Xabi Solano

MARGOTU NAHI? EZ
MARRAZTU NAHI? EZ
JOLASTUKO AL GARA HONTAN? EZ
IDATZI NAHI? EZ
IRAKURRI NAHI? EZ
INTERNETEKO BIDEO BAT BAI! EZ, EZ, EZ DUT NAHI!

**EZ DUT EZ DUT EZ DUT NAHI**
**EZ DUT EZ DUT NAHI.**
**EZ DUT EZ DUT EZ DUT NAHI**
**EZ DUT EZ DUT NAHI.**

INOIZ EZIN ASMATU, ZER NAHI OTE DUT?
MARGOTU EDO MARRAZTU,
BIDEA GIDATZEA NAHI DUT!

BAZKALDU NAHI? EZ
AFALDU NAHI? EZ
BROKOLIA JANGO AL DUGU? EZ
TA ASKALDU? EZ
EDOTA EZ JAN? EZ
TXOKOLATE ZATITXO BAT BAI! EZ, EZ, EZ DUT NAHI!

**EZ DUT EZ DUT EZ DUT NAHI**
**EZ DUT EZ DUT NAHI**
**EZ DUT EZ DUT EZ DUT NAHI**
**EZ DUT EZ DUT NAHI**

BETI EZIN ASMATU, ZER NAHI OTE DU?
MARGOTU EDO MARRAZTU?
HAZTEN LAGUNDU BEHARKO DUT

LO KULUXKARIK? EZ
SOFAN ESERI? EZ
PASEO BAT EGINGO DUGU! EZ
DANTZATU NAHI? EZ
ABESTU NAHI? EZ
LAGUNEKIN JOSTATZERA BAI! EZ, EZ, EZ DUT NAHI! ...
BENO... BA, ORAIN BAI...
BA ORAIN EZIN DA!

INOIZ EZIN ASMATU, ZER NAHI OTE DUT?
MARGOTU EDO MARRAZTU,
BIDEA GIDATZEA NAHI DUT!
HAZTEN LAGUNDU BEHARKO DUT

# IZOTZETAKO ERREGINA

MUSIKA:
Urko Oskoz
HITZAK:
Urko Oskoz eta Nerea Urbizu
ABESLARIA:
Nerea Balda

IZOTZETAKO ERREGINA
ZURIA ETA BELTZA
HEGAN EGITEN EZ DUEN TXORITXO AUSARTA
IZOTZETAKO ERREGINA
ZURIA ETA BELTZA
ARRAIN AZKARRENEN PARE MURGILTZEN DA URETAN

**PIN PON PINGUINOA**
**PON PIN ZURITXOA**
**PIN PON PINGUINOA**
**ITSAS TXORITXOA**

IZOTZETAKO ERREGINA
ZURIA ETA BELTZA
ZABOR ARTEAN ERE IGERIAN DABIL
IZOTZETAKO ERREGINA
ZURIA ETA BELTZA
PLASTIKO ZIKIN BATEKIN TRABATU DA URETAN

**PIN PON PINGUINOA**
**PON PIN ZURITXOA**
**PIN PON PINGUINOA**
**ITSAS TXORITXOA** (BERRIZ)

Ez plastikorik, ez hondakinik,
ez petroliorik, gure itsasoetan. [3 aldiz]
Gure itsasoetan.

# ASTELEHENA DA

MUSIKA:
Urko Oskoz
HITZAK:
Urko Oskoz
ABESLARIA:
Mikel Santos, Belatz

A-A  ASTELEHENA DA
DENOK IKASTETXERA
A-A ASTELEHENA DA
ESKOLAN JOLASTERA (berriz)

GELAKO LAGUN GUZTIAK
IKUSTEKO IRRIKAN
EMAN MUXU ETXEKOEI
PENTSATU GABE BITAN. (bi aldiz)

A-A  ASTELEHENA DA
DENOK IKASTETXERA
A-A ASTELEHENA DA
ESKOLAN JOLASTERA (berriz)

NOR OTE DA MAKINISTA
EGUN EDER HONETAN?
LAGUNTZAILE IZATEA
POLITA DA BENETAN! (bi aldiz)

ASTELEHENA JEI
ASTELEHENA JEI
ASTELEHENA JEI JEI JEI (4 ALDIZ)...

A-A  ASTELEHENA DA
DENOK IKASTETXERA
A-A  ASTELEHENA DA
ESKOLAN JOLASTERA (Berriz)

# GIZA APARATUAK

MUSIKA:
Nerea Urbizu
HITZAK:
Nerea Urbizu
ABESLARIA:
Irati Goikoetxea

**GORPUTZA DA MAKINA BAT,**
**GORPUTZA DA BAKARRA!**
**APARATUAK MARTXAN JARRIZ**
**GORPUTZA JARTZEN DA LANEAN**

1-Arnasa hartu eta bota, birikak lanean.
Energia eskuratzeko, digestio aparatua

**GORPUTZA DA MAKINA BAT,**
**GORPUTZA DA BAKARRA!**
**APARATUAK MARTXAN JARRIZ**
**GORPUTZA JARTZEN DA LANEAN**

2- gizakiak sortzeko ahalmena, ugalketari esker.
Nerbio sistema den-dena koordinatzeko.
Behar dugun guztia odolean zainetatik pasatzen da,
zirkulazio gorria, garraiatzaile bitxia.

**GORPUTZA DA MAKINA BAT,**
**GORPUTZA DA BAKARRA!**
**APARATUAK MARTXAN JARRIZ**
**GORPUTZA JARTZEN DA LANEAN**

3-jandako dena ez dugu behar, nondik joango ote da?
Hondakinak kanporatu, hau da iraitz aparatua.
Lokomozio aparatua, nolanahi mugitzeko:
korrika, saltoka, txingoka, edo eserita.

**GORPUTZA DA MAKINA BAT,**
**GORPUTZA DA BAKARRA!**
**APARATUAK MARTXAN JARRIZ**
**GORPUTZA JARTZEN DA LANEAN** (berriz)

# GORA GURE GAYARRE

MUSIKA:
Nerea Urbizu
HITZAK:
Urko Oskoz
ABESLARIAK:
David eta Mikel Tenampas

HANDIA GURE GAYARRE
ABESLARI NAFARRA
TXIKITATIK ARTZAINA
PERTSONA MAITAGARRIA
ERRONKARIKO ALTXORRA
PIRINIOTAKO BIHOTZA
BERE_AHOTS INDARTSUAREKIN
ABESTU ZUEN MUNDU OSOAN

**GORA GURE GAYARRE**
**ERRONKARIKO EZTARRI GOXOA**
**GORA GURE GAYARRE**
**EUSKALDUN PETO-PETOA**

HANDIA GURE GAYARRE
ABESLARI NAFARRA
GAZTETAN ERREMENTARI,
PERTSONA MAITAGARRIA
ERRONKARIKO ALTXORRA
PIRINIOTAKO BIHOTZA
BERE_AHOTS INDARTSUAREKIN
“ONKI XIN” ERRANEZ
MUNDUAN ZEHAR

**GORA GURE GAYARRE**
**ERRONKARIKO EZTARRI GOXOA**
**GORA GURE GAYARRE**
**EUSKALDUN PETO-PETOA**

# MANOLITO HEZURTXOA

MUSIKA:
Urko Oskoz
HITZAK:
Urko Oskoz
ABESLARIA:
El PiÒas (Marea)

**MANOLITO MANOLITO GELAKO LAGUNTXOA**
**MANOLITO MANOLITO GURE_ESKELETOTXOA**
(ALE MANOLITO, HEZURTXO!)

**MANOLITO MANOLITO GELAKO LAGUNTXOA**
**MANOLITO MANOLITO GURE_ESKELETOTXOA**
(EMAN-EMAN, MANOLITO!)

LIBURUTEGIAN DU BERE ETXETXOA
IPUINEKIN GOZATZEN BAI BIHURRITXOA
206 HEZUR, BELDURGARRIA DIRUDI
BAINA_IRRIBARREZ BETI, ZORION IRUDI.

**MANOLITO MANOLITO GELAKO LAGUNTXOA**
**MANOLITO MANOLITO GURE_ESKELETOTXOA**
**MANOLITO MANOLITO GELAKO LAGUNTXOA**
**MANOLITO MANOLITO GURE_ESKELETOTXOA**
(AUPA HI!)

HEZURREZ BETETA ZURI-ZURIA
ESTATUAK BEZALA, GELDI-GELDIA
HITZIK EGIN GABE ISIL-ISILA
BAINA HALA ERE ALAI-ALAIA

**MANOLITO MANOLITO GELAKO LAGUNTXOA**
**MANOLITO MANOLITO GURE_ESKELETOTXOA**
**MANOLITO MANOLITO GELAKO LAGUNTXOA**
**MANOLITO MANOLITO GURE_ESKELETOTXOA**
**MANOLITO MANOLITO GELAKO LAGUNTXOA**
**MANOLITO MANOLITO GURE_ESKELETOTXOA**
(ALE MANOLITO, HEZURTXO!)

# DRAVET

MUSIKA:
Nerea Urbizu
HITZAK:
Nerea Urbizu
ABESLARIA:
Nerea Urbizu

LAGUN BAT BADUT DRAVET, DRAVET
GAITZ BEREZI BAT, DRAVET, DRAVET
BEGIRADA GALDUA, DRAVET, DRAVET, DRAVET,
TERMOMETROA ESKURA DRAVET, DRAVET,
BEGIRADA GALDUA, DRAVET, DRAVET.

LAGUN BAT BADUT DRAVET, DRAVET
GAITZ EZOHIKO BAT, DRAVET, DRAVET
FAMILIA DU OINARRI, DRAVET, DRAVET, DRAVET
BIHOTZ BIGUNEN BEHARREZ DRAVET, DRAVET,
FAMILIA DU OINARRI, DRAVET, DRAVET.

**EZ AHAZTU_INOIZ, MUINOA ALTUA_IZAN ARREN
BADA BETI BIDEZIDOR BAT TONTORRERANTZ,
EZ AHAZTU_INOIZ, MUINOA ALTUA_IZAN ARREN
BADA BETI BIDEZIDOR BAT TONTORRERAINO.**

LAGUN BAT BADUT DRAVET, DRAVET
GAITZ ARRARO BAT, DRAVET, DRAVET
TXIKITATIK DRAVET, DRAVET, DRAVET, DRAVET
BIHOTZ BIGUNEN BEHARREZ DRAVET, DRAVET,
FAMILIA DU OINARRI, DRAVET, DRAVET.

**EZ AHAZTU_INOIZ, MUINOA ALTUA_IZAN ARREN
BADA BETI BIDEZIDOR BAT TONTORRERANTZ,
EZ AHAZTU_INOIZ, MUINOA ALTUA_IZAN ARREN
BADA BETI BIDEZIDOR BAT TONTORRERAINO.
TONTORRERAINO, TONTORRERAINO, TONTORRERAINO...**

# BUHAMIEK

MUSIKA:
herrikoia
HITZEN MOLDAKETA:
Nerea Urbizu
ABESLARIA:
Jon Basaguren

1-BUHAMIEK BADAKITE TRIKU TRAKUN EGITEN
TRIKU TRAKUN EGIN ETA MASAI ERAN SALTATZEN.
LUPAIRETON, LUPAIRETON, LUPAI LUPAI LUPAIRETON
LUPAIRETON, LUPAIRETON, LUPAI LUPAI LUPAIRETON.

2-BUHAMIEK BADAKITE TRIKU TRAKUN EGITEN
TRIKU TRAKUN EGIN ETA HAKA DANTZA EGITEN
LUPAIRETON, LUPAIRETON, LUPAI LUPAI LUPAIRETON
LUPAIRETON, LUPAIRETON, LUPAI LUPAI LUPAIRETON.

3-BUHAMIEK BADAKITE TRIKU TRAKUN EGITEN
TRIKU TRAKUN EGIN ETA ARIN-ARIN DANTZATZEN
LUPAIRETON, LUPAIRETON, LUPAI LUPAI LUPAIRETON
LUPAIRETON, LUPAIRETON, LUPAI LUPAI LUPAIRETON

4-BUHAMIEK BADAKITE, BADAKITE TRIKU TRAKUN EGITEN
TRIKU TRAKUN EGIN ETA KALEAN RAPEATZEN
LUPAIRETON, LUPAIRETON, LUPAI LUPAI LUPAIRETON
LUPAIRETON, LUPAIRETON, LUPAI LUPAI LUPAIRETON

5-BUHAMIEK BADAKITE TRIKU TRAKUN EGITEN
TRIKU TRAKUN EGIN ETA ESTATUENA EGITEN
LUPAIRETON, LUPAIRETON, LUPAI LUPAI LUPAIRETON
LUPAIRETON, LUPAIRETON, LUPAI LUPAI LUPAIRETON

6-BUHAMIEK BADAKITE TRIKU TRAKUN EGITEN
TRIKU TRAKUN EGIN ETA NAHI DUTENA EGITEN.
LUPAIRETON, LUPAIRETON, LUPAI LUPAI LUPAIRETON
LUPAIRETON, LUPAIRETON, LUPAI LUPAI LUPAIRETON.

# ZEINEN ALBOAN?

MUSIKA:
Nerea Urbizu
HITZAK:
Nerea Urbizu
ABESLARIA:
Eymard Uberetagoena

KATTAGORRI, KATTAGORRI
POZIK DABIL BASOAN
TA UNTXIA, TA UNTXIA
DOA BERE ALBOAN.

BASURDETXO, BASURDETXO,
POZIK DABIL BASOAN
TA ORKATZA, TA ORKATZA
DOA BERE ALBOAN.

AZERITXO, AZERITXO
POZIK DABIL BASOAN
TA ERBIA, TA ERBIA,
ERBIA? ERBIA? EZ, EZ, EZ!!
**EZ DOA BERE ALBOAN.**

BARRASKILO, BARRASKILO
POZIK DABIL BASOAN
TA ERLEA, TA ERLEA,
DOA BERE ALBOAN.

ADARBAKAR, ADARBAKAR
POZIK DABIL BASOAN,
TA ORTZADARRA, TA ORTZADARRA
DOA BERE ALBOAN.

KIRIKIÑO, KIRIKIÑO,
POZIK DABIL BASOAN
TA IGELA, TA IGELA,
IGELA? IGELA? EZ, EZ, EZ!
**EZ DOA BERE ALBOAN.**

# CHIPKO

MUSIKA:
Nerea Urbizu
HITZAK:
Nerea Urbizu
ABESLARIA:
Maider Ansa

1- BAZEN BEHIN INDIA IPARRALDEAN
BASO BERDE ETA EDER BAT
ZORAGARRI BEZAIN EMANKORRA
HERRITARRENTZAT NAHIZ KANPOKOENTZAT

2- HERRITARREI ARNASA ETA BIZIA
EMATEN ZIETEN BASOEK.
KANPOTARREI DIRUA_ETA_ERRETXINA
BERAZ ZUHAITZAK MOZTEN HASI ZIREN.
*(KLOK, KLOK, KLOK...)*

3-BERAZ EMAKUME TALDE BATEK
ZUHAITZAK BESARKATU ZITUEN
HONELA ELKARRI BABESA_EMANEZ,
HAU ESATEN ZUTEN BITARTEAN:

*CHIPKO-CHIPKO-CHIPKO-CHIPKO*

4-KANPOTARRAK HORI IKUSIRIK
BASO HARTATIK JOAN ZIREN.
HERRITARREK BASOA MANTENTZEA
BETIRAKO LORTU ZUTEN.

**ALTXORRA GUREA, ALTXOR BERDEA**
**INDARRA, BIZIA EMATEN DIGUNA.**
**EZ AL LITZAKE EDERRA**
**NORBERAK BAT LANDATZEA?**
**NATURA ESKERTZEKO**
**MODU EMANKORRA,**
**MODU EMANKORRA.**
**CHIPKO, CHIPKO, CHIPKO, CHIPKO...**

Oharra: Chipko hitzak gogor heldu esan nahi du, estu eutsi.

# BIHOTZETIK GARUNERA-GARUNETIK BIHOTZERA

MUSIKA:
Nerea Urbizu
HITZAK:
Nerea Urbizu
ABESLARIA:
Nacho Vidal eta Ruben Garcia

HEMENTXE DUGU BURUA,
BERE BARRUAN GARUNA
PENTSATZEKO, BARRE EGITEKO,
ERABAKITZEKO BALIO DUENA.
PENTSATZEAN, BARRE EGITEAN,
EDO IKASTEAN...

1-HEMENTXE DUGU BURUA,
BERE BARRUAN GARUNA
PENTSATZEKO, BARRE EGITEKO,
ERABAKITZEKO BALIO DUENA.
PENTSATZEAN, BARRE EGITEAN,
EDO IKASTEAAAAAAAAN... LAGUNTZEN DUENA.

2-HEMEN DITUGU SAIHETSAK,
BERE BARRUAN BIHOTZA
PENTSATZEKO, BARRE EGITEKO,
IMAJINATZEKO BALIO DUENA.
PENTSATZEAN, BARRE EGITEAN,
EDO MAITATZEAAAAAN... LAGUNTZEN DUENA.

GARUNA ETA BIHOTZA,
ASPALDIKO LAGUNAK
ONGI ZAINDU, ETA ENTZUN, BESTELA... AI AI AI
ONGI ZAINDU, ETA ENTZUN, BESTELAAAAA....

3-HEMENTXE DUGU GARUNA,
HEMENTXE DUGU BIHOTZA,
ELKARREKIN LAN EGINEZ GERO
GARDEN AGERTUKO ZARA ISPILUAN,
ELKARREKIN LAN EGINEZ GERO
GARDEN AGERTUKOOOOO... ZARA ISPILUAN.

# IPURDI-IPURDI

MUSIKA:
Nerea Urbizu
HITZAK:
Nerea Urbizu
ABESLARIAK:
Telleria anaiak

**IPURDI-IPURDI, ALUA, ZAKILA**
**PIXA, KAKA ETA PUZKERRA!** (berriz)

SOBERA DUDANA ZULOTXOTIK BEHERA,
USAINEN SALTOKIAN EHUNDAKA AUKERA (berriz)
(SARKORRA, XUABEA, GUSTAGARRIA, EZINEZKOA, ITSASKORRA,
JABEAREN GUSTUKOA... AAAAAJJJJ)

**IPURDI-IPURDI, ALUA, ZAKILA**
**PIXA, KAKA ETA PUZKERRA!** (berriz)
SOBERA DUDANA UZKITIK BEHERA,
KOLOREEN SALTOKIAN MILAKA AUKERA (berriz)
(MARROIA, TXOKOLATE KOLOREA, BERDEA, HORI-HORIA, OKRE, ILUNA...
AJJJJ)

**IPURDI-IPURDI, ALUA, ZAKILA**
**PIXA, KAKA ETA PUZKERRA!** (berriz)
SOBERA DUDANA IPURTZULOTIK BEHERA
TESTUREN SALTOKIAN MILIOIKA AUKERA (berriz)
(GOGORRA, APURTUA, BIGUNA, BOLATXOAK, URTSUA, TXISTORRA... AJJJ)

HAU DA NIRE GORPUTZA, NIRE IPURDIA, SOILIK NIREA
PXX, PLOZT ETA PURRUT, BAI SOINU POLITAK, BARREGARRIAK!
ONGI, POZIK EGOTEKO LAGUNTZEN DIDATE,
BARREZ LEHERTU ARTE, IRRIZ URRATU ARTE.
BARREZ LEHERTU ARTE, IRRIZ URRATU ARTE.

**IPURDI-IPURDI, ALUA, ZAKILA**
**PIXA, KAKA ETA PUZKERRA!** (3 aldiz)
**PIXA, KAKA ETA PUZKERRA!**

# ESKERRIK ASKO!

MUSIKA:
Nerea Urbizu
HITZAK:
Nerea Urbizu
ABESLARIA:
Nerea Urbizu

GARAI BEREZIAK, DESBERDINAK
BIZITZEN ARI GARA GURE ETXEETAN.
IKASTETXEAK ITXITA
TA BITARTEAN, ASKORI HAU ESAN BEHARRA:

ESKERRIK ASKO, ESKERRIK ASKO,
OSASUN LANGILEAK, MUXU HEGALDUNAK!
ESKERRIK ASKO, ESKERRIK ASKO,
AMONAK TA AITONAK, MUXU HEGALDUNAK!

GARAI BEREZIAK, DESBERDINAK
BIZITZEN ARI GARA GURE ETXEETAN.
IKASTETXEAK ITXITA
TA BITARTEAN, ASKORI HAU ESAN BEHARRA:

ESKERRIK ASKO, ESKERRIK ASKO,
ETXEKO TXIKIENAK, MUXU HEGALDUNAK!
ESKERRIK ASKO, ESKERRIK ASKO,
GIDARI, BANATZAILE, MUXU HEGALDUNAK!

GARAI BEREZIAK, DESBERDINAK
BIZITZEN ARI GARA GURE ETXEETAN.
IKASTETXEAK ITXITA
TA BITARTEAN, ASKORI HAU ESAN BEHARRA:

ESKERRIK ASKO, ESKERRIK ASKO,
DENDARI, BASERRITAR, MUXU HEGALDUNAK!
ESKERRIK ASKO, ESKERRIK ASKO,
SUHILTZAILE, GARBITZAILE, MUXU HEGALDUNAK!

GARAI BEREZIAK, DESBERDINAK
BIZITZEN ARI GARA GURE ETXEETAN.
IKASTETXEAK ITXITA
TA BITARTEAN, ASKORI HAU ESAN BEHARRA:

ESKERRIK ASKO, ESKERRIK ASKO
AMATXO TA AITATXO, MUXU HEGALDUNAK!
ESKERRIK ASKO, ESKERRIK ASKO,
GURE LAGUN GUZTIEI MUXU HEGALDUNAK!

(ETA TXAKURRAK ZER? TXAKURRAK ERE BAI
TXAKURRAK! SUHILTZAILEAK, AMATXO! AITATXO!
AMONA, AITONA, GARBITZAILEAK,
MEDIKUAK, DENDARIAK, BASERRITARRAK,
BANATZAILEAK, ERIZAINAK, GIDARIAK,
LAGUNAK, ESKERRIK ASKO!!)